

BALIO PROPOSAMENA:

Gure produktua kualitatiboki baloratzen dugu. Egonkortasun aldetik, ez dira lurruntzen. Berritzaileak izateaz gain, denontzat eskuragarri daude online salmenta dela eta. Horrez gain, oso errazak dira erabiltzeko, ez baitituzte inolako zailtasunik ekartzen jartzerako orduan. Hala ere, jarraibideak ekartzen dituzte badaezpada ere. Betaurreko hauek, kaxa ekologiko batean datoz, poltsa batez bilduak. Baita ere, ordezeko sokatxoa, garbitzeko likido eta zapia datoz kaxaren barruan. Gainera, betaurrekoak kolore eta tamaina desberdinetakoak egongo dira, horrekin batera, pertsonalizatu eta nahi izanez gero kristal polarizatua jar dezakezu. Materialari dagokionez, %70 polikarbonatoa, %20 silikona eta %10 elastomero dira. Marka GANBO da. Gure betaurreko hauek, egunero igeri egiten duten pertsonentzat zuzenduak daude. Hala ere, edonork erosi ditzake grina edukiz gero. Fabrikazio akatsa izanez gero, hilabete bateko epea dago hauek itzultzeko eta dirua itzuliko zaio bezeroari.